

noaua



**Kiroldegiko hainbat neurri
murriztaile, bertan behera**

**gertuago.eus web orrialdea
merkatarien katalogoa
izango da aurrerantzean**

**Udalak Aranerreka
ingurua biziberrituko du:
“Herrigunean bertan
naturagune zabal bat
izango dugu”**

6. or.

KAFE GARAIA

Ixak Arruti

“Nire benetako bokazioa
topatu nuen Zumarte
Musika Eskolan”

25 urte

pertsonen arteko
zubiak eraikitzen



FAMILIA BITARTEKARITZAKO
ZERBITZUA

BILBO, DONOSTIA, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskadi.eus/familiabitartekaritza



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU DE JUSTIZIA
ETA GABERTE POLITIKAKO ZALAK

DEPARTAMENTO DE JUSTIZIA
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

Zure zain egongo gara!



943 53 72 38

628 45 78 39 - 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com
reformasmonroy.com

**Berritze zerbitzu integralen bulegoa
Usurbilgo Kale Nagusiko 35.behean
Sektorean esperientzi zabala**

KALE NAGUSIA 35, BEHEA, USURBIL

Albisteak iruditan

Udarregiko bertso-eskola martxan da

Urriaren 7an abiatu zen Usurbilgo bertso-eskola. Berritasunik izango da aurtengo ikasturtean: Asier Ibarguren arituko da irakasle lanetan. Udarregin eginiko lehen saioan kuadrilla ederra batu zen.

Udarregiko LH5 eta LH6ko ikasleei deialdi berezia egin zitzaten ikasturte hasieran. Bertso-eskolan parte hartzeko gonbitea. NOAUA!n ere eman genuen deialdiaren berri. Ez dira gutxi animatu direnak. Argazkian dituzue lehen eskolan batu ziren gazteak. Eta eurekin batera Asier Ibarguren ageri da, ikasturte honetako irakasle berria.



Ikasturte honetan Asier Ibarguren arituko da irakasle lanetan.

Laburrean

Egoera berrira, eremu berdean

Osasun-larrialdia amaitutzat eman eta neurri murriztaile gehienak bertan behera utziak ditu Eusko Jaurlaritzak. Egoera berri honetara eremu berdean dela heldu da Usurbil; 47,56ko intzidentziarekin.

“Gizonak, maskulinitateen kaiolan?” solasaldia

Usurbilgo Udalak eta Arremanitz kooperatibak antolatuta, urriaren 14an arratsaldeko 18:00etan Sutegin. Izena eman behar da aurretik: parekidetazuna1@usurbil.eus edo 943 377 110.

Urriaren 23an, 1955ean jaioetakoen bazkaria

“Urriaren 23an, larunbata, bazkaltzera elkartzeko asmoa dugu 1955ean jaioak, Atxega jatetxean, eguerdiko 14:00ak aldera”. Bertaratu nahi duenak, aurrez izena eman dezala: 675 00 64 45 (Maribi).

noaUA

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaueus /// www.noaueus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Alazne Arruti


Komunitateak eraikitzeaz

Komunitateak, elementu komunak partekatzen dituen gizaki multzoak direla esan ohi da. Egunerokotasunari begira jarritz gero, erraza izan liteke inguruarekin partekatzen dugun hori identifikatzea: hizkuntzak, zapalkuntzak, kulturak, ohi-turak, mundua ikusteko erak, balio sozial eta moralak, maila sozialak, ingurune geografikoak...

Ustez, gizartea osatzen duten pieza gertuko edota antzekoak partekatzen dituen giza talde bat litzateke komunitatea. Eta elementu horiek guztiak, norbanako bakoitzaren identitatean eragin zuzena izateaz gain, ingurunearekiko kohesio-maila jakin bat ere eratzen dute norberarengan.

Komunitatea sortzen duten adreilu horietatik ordea, eratze-ko adinako suntsitzeko gaitasuna izan dezakete. Elkarren arteko gatazken abiapuntu izan ohi baitira gehienetan. Batzen gaituzten elementu guztiok ordea, bizigarriak eta moldagarriak behar lukete izan. Baina maiz, gure garapen abiadura edo maila ez da bat etortzen inguruan dugunarekin. Eta halakoetan zer egin genezake?

Bada, nire kasuan, hutsune edo behar hori asetzeko intentzioaz, itzulerarako data zuen hegaldi bat hartu nuen urrunera. Itsasoa alderik alde zeharkatu eta gogoz hartuko



“Energia komunitateek, definizioz, behetik gorako egiturak izan behar dute. Herritarrek sortu eta gidatzen duten prozesu komunitario bat”.

ALAZNE ARRUTI

“Gure etorkizunari forma emateko, aukera interesgarri bat hasi da zabaltzen gure inguruan. Energia komunitateen garapena”

ninduen eta hartuko nuen lurralde berri baterantz abiatu nintzen epe batez. Eta pixkanaka, hango errealitatean berreratze-ko aukera izan nuen. Motxilan neramanaren zati handi bat albo batera utzi, eta ingurune ezberdin horretatik ikasteko nuena besoak zabalik hartu nuelarik.

Agian baten batek, halaxe topatu lezake bere txokoa. Benetan, bere bereak sentitzen dituen arrazoi eta ikusmirak garatzeko aukera eskaintzen dion inguru bat bete-betean to-

patuaz. Baina batzuetan, ostera bueltan itzultzeko unea ere heltzen da.

Nire kasuan, ikaspenez eta sekula agurtu nahi ez nituzkeen pertsona eta bizipenak atzean utzi eta modu pausatua-go batean hazten eta eraldatzen ikusi ninduen abiapuntura itzuli nintzen. Eta espero nuen arren, bitxia izan zen nigan halako aldaketak eragin zituen denbora tarte baten ostean, guztiak lehengo moduan jarraitzen zuela ikustea.

Puntu honetara helduta, hurrengo helmugak irudikatzen hasi daiteke bat. Sosak aurrezten hasi eta imajinazioa martxan jartzen. Han eta hemengo jendearekin harremana mantendu eta distantziak mozten saiatzen.

Baina azken denboraldian, komunitate bat, inguratzen eta biltzen gaituen maindire soil bat ez dela berretsi dut. Guk geuk egiten baitugu bizigarri,

gurekin bat datozen egitura eta formak osatzea gure eskuetan dagoelarik. Eta une honetantxe zehazki, gure etorkizunari forma emateko, aukera interesgarri bat hasi da zabaltzen gure inguruan. Hain zuzen, energia komunitateen garapena.

Kontzeptu hau, Europatik datorren gaia da. 2018 eta 2019ko zuzentarauetan, aipamena egiten zitzairen, energia trantsizioarako tresna pribilegiatutzat. Eta aizue, gure gure zurtasunetik, elektrizitatearen prezioaren gorakada dela eta programatutako itzalaldi bat egin dezakegunok, benetan pairatzen ari garen hori aldatzeko mailu bat izan daiteke.

Izan ere, energia komunitateek, definizioz, behetik gorako egiturak izan behar dute. Herritarrek sortu eta gidatzen duten prozesu komunitario bat. Benetan, bizitza erdiguneari jarri eta honen ahalduntzea eman dadin eta behar sozialak lehentasun bihurtuaz. Eta noski, ekimen komunitario honek, ardatzean, eredu energetikoaren iraultza behar du izan. Baina horretarako, garrantzitsua da oso elkarrengana batzen gaituena identifikatzea. Garenaz eta izan nahi genukeenaz hausnartzea. Eta benetan, bizitza zentroan jarri nahi bada, energiaren gain, zeharkatzen gaituzten bestelako gai anitzez hitz egitea.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Erraustegiaren Ingurumen Baimen Bateratuari lotutako Jaurlaritzaren ebazpena, auzitara

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak Zubietako erraustegiari emandako Ingurumen Baimen Bateratuari lotutako iragan otsaileko ebazpena auzitara eramango du Usurbilgo Udalak. Hala jakinarazi zuten EHBilduren udal gobernu taldetik irailaren 30eko udalbatzarrean. 2021/828 zenbakidun alkatearen dekretua berrestea erabaki zuen bozketa bidez, EHBilduren udal ordezkarien babesarekin. EAJ-k aurka bozkatu zuen eta PSE abstenitu zen.



Jatorri industrialeko hondakinak erraustu nahi direlako eman du urrats hau Udalak.

Modu honetan urrats berri bat emango du Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzaren aipatu ebazpenaren aurka. Gogoan izan, Ingurumen Baimen Bateratuaren aldaketa ez funtsezkotzat jotzen zuen ebazpena kaleratu zuen urte hasieran, otsailaren 12an Ingurumen sailburuordeak. Horren aurka agertu zen Udala, aldaketa funtsezkoak txertatu zirela defendatu du hilabeteotan, “jatorri industrialeko hondakinak erraustu nahi direlako, tartean, arriskutsuak direnak” maiatzeko udalbatzarrean adierazi zutenez. NBE-ren arabera “minbizi sortzaileak” izan eta “gehigarri kimiko oso arriskutsuak” dituzten plastikoak esaterako.

Erraustegia hiri hondakinak tratatzeko eraiki eta martxan jarria egonda, “mota honetako hondakinak tratatu eta erretzen hasi nahi badira” bai, “bagaude funtsezko aldaketa

ESKAERA
“Kautela legearen printzipioa ezarri dadila eskatu du Udalak”

baten aurrean”, alkateak zioen. “Kautela legearen printzipioa aplikatu dadila eskatu zuten.

EHBildu: “Ezin dugu ahaztu Zaldibar”

Maiatzeko udalbatzarrean, gora jartzeko errekurtsua aurkezteko erabaki zuen Udala. Ebazpena “nulotzat jotzea” eskatzen zuten. Alkateak ohartarazi zuenez, “onartuko ez balitz, epaitegira jotzeko erabakia du Udala”. Neurri horren aurrean, irailaren 30eko udalbatzarrean salatu zutenez, “3 hilabeteren ostean, tamalez isiltasuna jaso dugu aurreikusitako moduan”. Adierazgarria dela dio udal gobernu taldeak, “arrazoi bat ere ez da

ematen adierazteko zergatik ez den aldaketa esanguratsua”. Isiltasuna hautsi eta erabakia arrazoitzea eskatzen diote Jaurlaritzari; “gure ustez argudioak bere horretan daude”. Udalaren nahia ez da “auzibideetan itotzea” EHBilduren esanetan, kezkagarritzat jotzen dute egoera, “ezin dugu ahaztu Zaldibar” zioen alkateak irailaren 30eko udalbatzarrean.

EAJ: “Ebazpenean ez dago aldaketa funtsezkorik”

Egoera honen aurrean, “prozedurarekin aurrera jarraitzea” eta urrats berri bat ematea erabaki dute. “2021eko otsailaren 12an emandako erabakiaren aurka Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurritzea, Udala honen interesak defendatuz”. Abokatu eta prokuradoreak izendatu ditu baita, alkate dekretu bidez. Dekretu hau da hain zuzen, irailaren amaierako udalbatza-

rrera eraman zutena. EHBilduren babesarekin berretsi zuten. Aurka agertu zen EAJ. Haien ustez, Ingurumen Baimen Bateratuari lotutako urte hasierako ebazpenean “ez dago aldaketa funtsezkorik”. Horrekin batera, “onurarik ekarriko ez dion ezertarako” udal baliabideak erabiltzearen aurka agertu ziren jeltzaleak.

“Herri onura”, herritarren ingurumena eta osasuna zaintzearen alde egiteko emango dutela pauso berria erantzun zioten udal gobernu taldetik, hasieratik ebazpenak legedia aldetik zalantza asko eragin dizkietelako. Eta argi defendatzen dute baietz, Ingurumen Baimen Bateratuan Jaurlaritzak txertaturiko aldaketa “handia” dela, bai kudeatuko diren hondakin industrialengatik, tartean hondakin arriskutsuak, eta baita kudeaketa horrek ekar ditzakeen ondorioengatik ere.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
 bazkariak EGUNERO
 afariak: OSTIRAL/LARUNBATA (22:00tan itxita)

943 362725
 688 690361

Ixak Arruti: “Zuzeneko emanaldietatik bizi den jendearentzat oso garai txarrak izan dira”

Kalean, pasieran dabilela, ikasleak edota ikasle ohiak hurbiltzen zaizkio. Agurtzera edo bi hitz egitera. Gitarra eskoletan orotzape onak utzi duen seinale. Gaztetxoek irakasle izateko dohain berezia duen seinale.

NOAUAren urteurrenaren aitzakian elkarriketa sorta hau abiarazi dugu. Beraz, ezer baino lehen, non zeunden duela 25 urte?

Ixak Arruti: Nik 35 urte dauzkat orain. Beraz, orain dela 25 urte hamar urte neuzkan. Ez naiz oso ondo gogoratzen non nengoen, baina seguru asko, ume oro bezala frontoian jolasten edo ikastolan egongo nintzen. Bihurrikeriak egiten seguruenik. Eta gutxi gehiago, hamar urteko ume batek egiten dituen gauzak egiten.

Hamar urterekin gitarra jotzen al zenuen?

Nire etxean beti egon izan da gitarra bat, amak ere gitarra jotzen duelako. Hamar urterekin akorde batzuk joko nituen. Orduan perkusionista nintzen ni. Zortzirekin kalejirak egiten nituen txistulariekin; atabala jotzen nuen.

Hortaz, familiatik datorkizu musikarako zaletasuna.

Nire amak gitarra jotzen du, osaben etxean pianoak daude, eta lehengusu guztiek ins-



“Gure ospakizunetan, Gabonetan esaterako, kantari aritzen gara. Giro horretan jaio naiz ni”, azaldu digu Ixak Arrutik.

IXAK ARRUTI

“Gauza asko dira pandemiak kendu dizkigunak, harremanak, kontzertuak... Eta ez dut batere ondo eraman”

trumentu bat izan dugu beti eskura. Gure ospakizunetan, Gabonetan esaterako, kantari aritzen gara. Beti. Giro horretan jaio naiz ni.

Zazpi bat urterekin Iker Murguzarekin hasi nintzen atabala ikasten. Zortzi urterekin jada txistulariekin kalejiran ibiltzen nintzen. Zortzi urterekin kontserbatoriora joan nintzen, perkusio ikasketak egitera. Han pianoa ere ikasi nuen. Gerora, hamar edo

hamaika urterekin, amarekin gitarra jotzen nuen elizan. Beranduago, organoa jotzen hasi nintzen bertan... Kontserbatorioko bandan eta orkestran ere jotzen nuen. Betidanik egon izan naiz musikari lotuta. Gitarra-erakiko joera etxetik datorkit baina autodidakta modura ikasi nuen. Horrelaxe izan zen.

Zuzenean aritzea bada zure ogibidearen parte. Musikari gisa, nola moldatu zara pandemia garaian?

Nik zortea daukat ez naizelako zuzenekoetatik bizi. Begira zer esatera iritsi garen! Hori triste da horrela izatea, hor ikusten da herri honetan dagoen kultura.

Pandemian, kulturak salbatu

gaitu, baina ematen du ahaztu zaigula hori. Ez naiz hor sartuko, bestela...

Ekonomikoki nire diru-iturria irakasle izatetik dator. Hala ere, zuzenekoak ez eskaintzeak sentiarazten zidan nire esentzia galtzen ari nintzela, zerbait falta nuela.

Gauza asko dira pandemiak kendu dizkigunak, harremanak, kontzertuak... Eta ez dut batere ondo eraman, egia esan, eta oraindik horretan gaude. Oraindik ezin da lehen bezala bidaiatu taldekideekin batera; kontzertuak egin eta lehengo martxa ez dirudi epe laburrean itzuliko denik. Zuzenekoetatik bizi den jendearentzat, musikari zein teknikarientzat, oso garai txarrak izan dira.

“Usurbilen izugarritzko kontzertuak izaten ziren”

NOAUA! Betidanik musika izan duzu gertu. Etxetik hasita. Rokerako grina ordea, noiz piztu zitzaizun?

Ixak Arruti: Gaztea nintzeanean, Usurbilen izugarritzko kontzertuak izaten ziren, eta garaioko punta-puntako

taldeak ikusten genituen. La Polla, Koma, Su ta Gar, Etsaiak eta RIPen kontzertuak ikusi genituen gau batean, erreferente diren horiek denak gure herrian. Ordura arte etxean entzuten genuen Anje Duhalde, adibidez, eta rockari

lotuago Urtz ere bai. Nik batera jotzen nuen garai hartan, orduan nire erreferentzia Paulillo Etsaiak-eko bateriajolea zen. Paulillo ikusi eta esaten nuen: *ama, nik hori izan nahi dut!* Hori izan zen nire lehenengo rockeko erreferentzia.

Geroago, Kakik emandako gitarra elektriko bat iritsi zen etxera, Anje Duhalderen gitarra izan zela uste dut. Orduak eta orduak ispiluaren aurrean ematen nituen itxurak egiten, frontoian ikusi nituen talde horiek bezala (...).

Ixak Arruti: “Nire benetako bokazioa topatu nuen Zumarte Musika Eskolan”

NOAUA! Musika irakasle zara Zumarten. Hori ere bilatu gabe iritsi den zerbait izan al da?

Ixak Arruti: Ni 21 urterekin hasi nintzen lanean. Ikasteaz kokoteraino nengoen eta lanean hasi nintzen. Zubietan ikasi nuen, eta tornuetan eta fresatzeko makinarekin ibiltzen nintzen tailerrean. 25 urterekin esan nuen: nik musikaz bizitzen saiatu behar dut.

Gitarra irakasle bat behar zuten Zumarten, eta bertan sartu nintzen 25 urterekin. Ez zen nik bilatutako zerbait izan, nahiz eta aurretik etxez etxe ibiltzen nintzen klaseak ematen. Egia esan, beldur pixka batekin hasi nintzen Zumarten, nola erakutsi ez nekien, nik ez bainuen sekula gitarra irakasle bat izan. Amak akordeak erakutsi zizkidan eta gero bideoak ikusita ikasi nuen nire kabuz.

Eta orain Zumarteko irakaslea zara.

Nire benetako bokazioa topatu nuen bertan: irakasle izatea, eta nik musikarekiko sentitzen dudana pasio hori ikasleei transmititzea. Hori da dena eta horretan nabil. Oso gustura.

Irakasle batek asko eman behar du. Pazientzia handia beharko da. Eta bueltan, zer jasotzen du irakasle batek bueltan? Esker oneko ofizioa al da?



“Nire helburua da musikaz gozatzen erakustea”.

IXAK ARRUTI

“Ikasleek beraien kabuz talde bat egin dutela ikusten dudanean, kontzertuak eskaintzen hasi eta ni ez nautela behar ikusten dudanean, orduan sentitzen dut benetako betetasuna”

Izugarrizko zortea daukat. Nire helburua da musikaz gozatzen erakustea. Musika maitatzea, eta ez dio axola gitarra, flauta edota edozein instrumentu izatea. Ikasleekin momentu gogoangarri asko daude. Lehenengo aldiz taldean jotzen dutenean, adibidez. Ondo edo gaizki, baina lehenengo aldiz taldean jotzen dutenean beraien aurpegiak ikustea bezalakorik ez da. Nik zer sentitu nuen gogorarazten didate. Be-

rriz bizitzen dut une hori. Beste momentu gogoangarria izaten da lehenengo aldiz kontzertu bat ematen dutenean. Bertsio Gauean, adibidez, beraien lagunen aurrean. Izugarrizko harrotasuna sentitzen dut une horretan. Jaisten dira poz-pozik eta ni aldamenean negarrez hastezko zorian. Nire gonapetik ateratzen direnean, eta beraien kabuz talde bat egin dutela ikusten dudanean, kontzertuak eskaintzen hasi eta ni ez nautela behar ikusten dudanean, orduan sentitzen dut benetako betetasuna. Nire lana eginda dago.

Gaur egun eskolaz kanpoko jarduera asko daude. Haurra musika eskolara eraman, ez eraman, zalantzan diren gurasoei zer esango zenieke?

Ez naiz inor ezer esan edo ezer aholkatzeko. Askotan itsutzen gara ingelesarekin edota futbolarekin. Horiek ere oso ondo

daude, noski baietz.

Zerbait esan beharko banu, esango nieke kulturak salbatu gaituela pandemian. Pentsa dezatela musikak gizaki gisa zer ematen digun, eta arteak orokorrean (dela musika, dela pintura, dela dantza...).

“Eraikin berriak asko erraztu ditu gauzak”

Zumarte Musika Eskolako eraikin berrian ari zarete lanean. Eraikin zaharretik berrirako prozesua ez zen erraza izango, ezta?

Izugarrria izan da aldaketa. Egoitza berrian sartu aurretik ni Santuenean nengoen. Gogorra zen, gurasoek umeak bertara eraman behar zituztelako autoan. Irakasleonean artean ere denak leku ezberdinetan egonda, ez genuen harreman zuzenik, eta umeek ere ez beraien artean. Askoz hobeto gaude orain; gelak intsonorizatuta daude eta eraikin ederra daukagu.

Denok batera gaude orain. Gu gitarrarekin ari gara eta, bat-batean entzuten badugu piano bat, proposamenak sortzen dira kantu bat jotzeko. Oso ona da ikasleek ikustea beste instrumentu batzuk ere badi-rela. Gure gelan gitarra jotzen badugu ere, saxofoia edo beste instrumentuak ikusi eta entzutea oso aberasgarria da. Eraikin berriak asko erraztu ditu gauza hauek denak.

“Umore pixka bat botatzen dut faltan NOAUA!n”

NOAUA! Elkarrizketa sorta hau NOAUA!ren urteurrenari lotuta dago. 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer soberan?

Ixak Arruti: Galdera potoloa da, eta ez dakit oso ondo zer erantzun. Nik NOAUA! sentitzen dut zerbait oso gertukoa. NOAUA! etxera iristen denean

edo web orrian ikusten dudanean, gertutasun bat sentitzen dut. Nire herrian gertatzen denaren berri ematen dit.

Zerbait esateagatik, umore

pixka bat botatzen dut faltan. Galdera konprometitu bat egin eta herriko jendea zirikatzea; gisa horretako zerbait.

Perretxikozaleak eta eskubaloiko tirabirak lehen lerroan

Urteurrenaren aitzakian, atzera begira jarri gara eta duela 25 urteko kontu zaharrak berritzen hasi gara. Aldamenean duzue 1996ko urriaren 11n kaleratu genuen aldizkariaren portada. **'Kateak langara eskubaloian'** zioen pankarta atera zuten eskubaloiko jokalaria kantxara. Katez lotuta ageri dira argazkian.

Senior mutilek lehen mailara igotzeko txartela lortu zuten orduan, baina klubeko zuzendaritzak uko egin zion parte hartzeari jokalaria gutxiegi zela argudiatuz. Izen-ematea pasata, jokalaria batzuk fitxarik gabe geratu ziren, eta taldea

osatu gabe. Protesta modura, jokalaria batzuek eskubaloiko atean kateatu zuten beren burua.

Zutabearen edo iritziaren atalean, **Daniel Palacios perretxikozaleak** idatzitako artikulua kaleratu genuen. "Egun, herritarren kopurua eta kontsumitzen diren perretxiko mota desberdinak kontuan hartzen baditugu, perretxikozale hauen ezagutza Euskadiko altuenetarikoa dela esaten ausar gaitezke", zioen perretxikozaleak.

Perretxikoen gaiarekin jarraituz, galdeketa egin zuten herrian ondorengo gaiaren inguruan: *Perretxikoak bildu ala jan, zer nahiago duzu?* Dene-

tarik erantzunak jaso zituzten, perretxikoak gustuko ez dituztenetatik hasi eta erabat atsegin dituztenetaraino. Perretxiko biltzailerik ez zen agertu, ordea.

Laburrean 1996ko udazken hasierako gertaerak Porrusalda atalean batu genituen: Ezezagun batzuk **tren geltokia** erasotu zuten, Independentzia Eguneke ospakizunak, **Antton Pagola** intsumitua epaitu zuten, merkataritzan euskararen egoera aztertzeke beka eskaini zuen Udalak, **Antonio Maria Murua y Samaniego "Usurbilgo markesa" hil zen**, **Ramon Uribe** usurbildar presoan espetxez aldatu zu-



1996ko urriaren 11ko portadan, eskubaloiko jokalariai protestan.

ten, **Susana Martinek** "El derby vasco" izeneko liburuan parte hartu zuen eta ilustrazio lanak egin zituen...

Duela 25 urte

NOAUA! 1. zenbakia 1996ko urriaren 11n

"Edaria, dudarik gabe, sagardoa"

Mari Karmen Azpiroz, Urdaigako barazki saltzailea izan zen 1996ko urriaren 11ko elkarrizketatu nagusia.

NOAUA! Goizean goiz esnatu, gosalduta eta Donostiara lane- ra.

M^a Karmen Azpiroz: Bai, lau eta erdietan esnatzen naiz egunero. Ordu honetan, ordea, ez dut gosaltzen. Baso bat ur hartu etxean, Donostiara joan, eta zazpi eta erdietan kafesne bat hartzen dut.

Zein da gehien saltzen den barazkia?

Egunero egunero eraman beharrezkoak: porrua, azelga eta letxua dira. Eta gero, garaiaren garaikoak.

Zenbat urte dira egunero-egunero Bretxan baraz-

kiak saltzen zabilatzala?

Duela 16 urte hasi nintzen salmenta lanetan Donostian.

Negutegiekin abantaila ederra.

Dudarik gabe. Orain, ordea, kanpoko garaia izaten da. Negurako izaten dira negutegiak. Horiek ere, baldintza asko dituzte: hotz handia egiten duen, haize-boladak...

Zenbateko ekoizpena duzue?

Begira; gure gizonak niri %2-%6 artean osatutako bandejak prestatzen dizkit egunero. Berak prestatu eta nik saldu.

Lan asko ematen al dizu honen?

Bai. Dedikazio handiko lana da. Fabrika batean bezala, zerbait nahi baduzu, lan egin behar da.

Eta bizitzeko adina ematen

du?

Asko jo behar da familia bat aurrera ateratzeko. Gauza asko jarri behar dira, negutegiak... Udan lan eta neguan jai eginez, ordea, ez dago aurrera egiterik.

Afizioirik?

Egia esan behar badut, saltxera samarra naiz. Beharrean dagoenari laguntzea gustatzen zait. Hori da nire afizioa.

Zure arloan gazteak nola ikusten dituzu?

Gazteari lagundu egin behar zaio. Lursail asko dago oraindik lantzeko. Nik uste dut udalletxeak zerbait egin beharko lukeela hauei laguntzeko: sailak jarri piperrak lantzeko...

Telebistan zer duzu gustokoan?

Goenkale ikusten dut batzuetan. Hori dut gustoko.



Mari Karmen Azpiroz, 1996an.

Noiz egin zenituen azken oporraldiak?

Pilariketan Errioxara joan ginen hiru egunetarako.

Barazkiak ala lekariak? Arraina ala haragia? Sagardoa ala ardoa?

Lehenengotik biak gustatzen zaizkit. Bigarrenetik, arraina. Eta edaria, dudarik gabe, sagardoa.

Aranerreka naturagunea edertzera doaz

Naturagune zabal bat, eroso, atsegina. Herriko parke nagusia izateko hobekuntza lanak iragarri ditu Udalak Aranerrekan. Artzabal ingurukoak bideratu dituzte azken urteotan; Punta-pax zubiaz bestaldekoekin ekingo diete datozen asteetan.

Agerreazpin etxebizitzak eraikiko ditu bertako lurjabe Aburuza enpresak. Aurretik ordea, ingurua urbanizatzeko lanei ekingo die, tartean, Aranerreka inguruan ere zenbait eskuhartze egingo ditu Lur Paisajistak SL-rekin batera. Xehetasunak eskuhartze eremutik bertatik eskaini dituzte Lur Paisajistak SL-ko ordezkari Iñigo Seguiolak eta Usurbilgo Udaleko udal gobernu taldeko kide Lur Etxeberriak.

Aranerrekako naturagunea edertzera datorren egitasmoa aurkeztu dute. Agerreazpi ondoko eremuan hobetzeko lanak egingo badituzte ere, “Aranerreka bere osotasunean aztertu eta hobetzeko azterlana eginga du, udalarekin elkarlanean, Lur Paisajistak enpresak”. Hartara, “eremu guztian paisaia irizpide berberak jarraitzea bermatu nahi dute”.



Herritarren ekarpenak jasotzeko aurkezpen ekitaldi bat deitzekoa da Udala.

LUR PAISAJISTAK

“Herrigunean naturagune zabal bat izango dugu, eroso eta atsegina”

6,5 hektareako lur eremuaz ari dira. “Usurbilgo herriak duen sekulako naturagunea, sekulako altxorra herrigunean bertan. Balioan jarri eta indartu nahi dugu”, Lur Etxeberriaren esanetan.

Proiektu hau herritarrekin partekatu nahi du Usurbilgo Udalak. Xehetasunen berri

eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko udazkenean aurkezpen ekitaldi bat deitzekoak dira.

Sei irizpide

2019an abiatu zuten azterlanean, sei irizpide finkatu zituzten. “Ibaiko ekosistema bultzatzea, ibilbide sarea indartzea, parkean zehar erakarguneak sortzea, jolasguneak areagotzea eta segurtasuna bermatzea, beti ere, jasagarritasun irizpideak oinarri hartuta”.

Parkearen ikuspegi osoa kontuan hartuta, hiru eremu bereizi daitezke. Jada garatua den Kaxkoko eta Artzabal inguruko eremua. “Aranerrekako erreka eta horren ingurua biziberritzeko lanak egin zituen Udalak duela hiruzpalau urte. Horrez gain, Kale Irekiak parte-hartze prozesuan, parkean jolaserako elementuak sortzeko eskatu zuten haurrek, haiekin propio egindako saioetan. Aurtengo udaberrian bertan, Kalezar azpiko zatian, garbiketa lanak egin ditu”.

“Herriko gune ezberdinak lotuko ditu”

Egitasmo honi segida eman nahi diote orain. Artzabal ingurukoaz gain beste bi eremu ditu Aranerrekak; Agerreazpi ondokoa eta azkenik, bi eremuok lotzen dituen Punta-paxeko zubi ingurua. Udalak “bi muturrak lotzeko lanak egingo ditu aurrerago”. Agerreazpi ondokoa da aldiz, Lur Paisajistak SL-k asteotan garatuko duen ingurunea. “Aranerrekako parkea 800 metro luze dituen ibilbide lineala da”. Ibilbide horri forma berri

bat eman nahi diote, gabeziak zuzendu eta parkearen elementu naturalak nabarmentzea, “esku hartze handirik egin gabe”.

Agerreazpi ondoko eremuak “erakarpen elementuak izango ditu, mahaia, aulkiak... Tartean gelditzen den banbuen zutabea kendu egingo dugu, espazio jarraitua izan dadin, eta haritzak ere landatuko ditugu. Bertako baserriak herrigunearekin lotzeko bide berri bat sortuko dugu, parkea oi-

nezkoentzako soilik izan dadin”, Seguiolaren esanetan.

Bideak aipatuta, eremu hau Agerreazpi eta Ugartondoko urbanizazioen artean kokatua dago. “Herrigunean bertan naturagune zabal bat izango dugu, eroso eta atsegina. Horrez gain, herria hazten ari da [Ugartondo, Agerrazpi, Kalezar, Matia], eta, beraz, Aranerrekak guztien lotura egin dezan nahi dugu, eta, horretarako, sarbide gehiago izango ditu etorkizunean. Egune-



Argazkian Lur Etxeberria zinegotzia eta Iñigo Seguiola Lur Paisajistak-eko ordezkaria.

rokoan, herriko joan-etorriak erosoago izan daitezen lagunduko du, baita ere, herriko gune desberdinak lotuz”.

Eskualdea zeharkatzeko gonbita, igande honetako Buruntzaldeko Ibilbideen 13. Egunean

Pandemiak ekimena iaz ospatzea eragotzi ostean, aurrean bai, urriaren 17an Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil lotuko dituen ibilbideen egunaren 13. edizioa bueltan da.

Ibilbide luzea jorratu duen ekimenak kirol arloan elkarlanean diharduten Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerriak batuko ditu. Ohi bezala tokian tokiko mendizaleen bilguneekin elkarlanean antolatutako hitzordu hau ez da lehiakorra izaten. “Edozein publiko motarentzat egokia den jardura fisikoa egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu ekimen honekin”, antolatzaileen esanetan.

Bost ibilbide aukeran

Hilaren 17ko ekimenean, bost ibilbide izango dira aukeran,



“Buruntzaldeko eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera izango dugu”.

BURUNTZALDEKO UDALAK

“Ibilbideok osatzeko, ‘Navi Ruta’ aplikazioa lagungarri izango da”

“landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta

baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz”.

Autobus zerbitzua udalerrir guztietan

Gogoan izan, ibilbideok osatzeko mugikorrean baliatu

ahalko duzuen Navi Ruta aplikazioa lagungarria izango zai-zue.

Bidean zehar kontrolak eta anoa eskainiko duten postuak jarriko dituzte antolatzaileek. Norbera bere udalerrira itzultzeko autobus zerbitzua ere egongo da.

Ibilbideei buruzko hainbat xehetasun

■ Eguna: urriak 17, igandea.
■ Ordua: 8:00-14:00.
■ Kontrolak eta anoa eskainiko diren postuak ezarriko dituzte herri guztietan: Andoainen eta Urnietan: herriko plazan. Lasarte-Oria: Elizatze plaza. Usurbilen: Santueneko bidegurutzean eta Aginagako Mapil baserri ondoan.
■ Bideetako seinaleztapena, udalerrir bakoitzaren kolorean: Andoain urdina, Lasarte-Oria urre zaharra, Urnieta berdea eta Usurbil laranja. Udalerrir guztietan bideei buruzko informazio panelak.
ANDOAIN – LASARTE-ORIA. Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak: urdina eta urre zaharra; 7,9

km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
ANDOAIN – URNIETA. Kolo-reak, urdina eta berdea; 4,8 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
ANDOAIN – USURBIL. Andat-atzatik barrena. Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
LASARTE-ORIA – URNIETA. Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
LASARTE-ORIA – USURBIL – AGINAGA. Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9 km (San-

tuenetik barrena Aginagako Mapil ingururaino). Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

Oharrak:

Navi Ruta aplikazioa, telefono mugikorrarentzat egokia, ibilbideren bat egiterakoan informazioa modu jarraituan jasotzeko; kokapena, jarraitu beharreko norabidea, interes-guneak... Aplikazioa deskargatzeko eta ibilbide bakoitza aktibatzeko udalerrir bakoitzean jarrian dauden paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu beharko dira edota herri bakoitzari dagokion zenbaki hau jarri beharko da: 125 (Andoain), 123 (Lasarte-Oria), 126 (Usurbil), 124 (Urnieta).

■ Autobus zerbitzua: 12:00etan irtengo da Aginagako Ezpaldiko gasolindegitik eta 14:00etan azkena toki berdinetik. Ibilbideko geltokiak: Aginaga (Ezpaldiko gasolindegia), Usurbilgo San Ignazio biribilgunea, Lasarte-Oriako Dorretzeko biribilgunea, Andoaingo Goikoplaza atzealdea eta Urnietako Kioskoa. Geltokietan jarriko dute autobus ordutegia.

■ Antolatzaileak: Buruntzaldeko udaletako kirol zerbitzuak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

■ Laguntzaileak: Andatza Mendi Elkartea (Usurbil), Euskalduna Mendigoizale Elkartea (Andoain), Ostadar S.K.T. mendizaleen eta ipar-martxa sailak (Lasarte-Oria).

Usurbil Herri Kirol Taldea, igande honetako erronkarako prestatzen

Ondoko irudian dituzue Aimar Zuloaga Seguro, Gabi Sarasola Ibargoyen eta Iurgi Mendiluze Zuloaga. Usurbil Herri Kirol Taldeko kideak hirurak, datoren “desafiorako”, giza probarako prestatzen ikusi ahalko zenituzten asteotan. Urriaren 17an “Urepel” harriarekin lehiatuko dira Dema plazan, Joseba Sanchez leitzarrarekin. Hiru kideak uztaila hasierako Usurbilgo Kultur Biraren baitan ospaturiko giza probako parte hartzaileetatik aukeratu ditu hitzordurako araudi bat zehaztua duen antolakuntzak.



Aimar Zuloaga Seguro, Gabi Sarasola Ibargoyen eta Iurgi Mendiluze Zuloaga Usurbil Herri Kirol Taldeko kideak dira. Igande honetako giza probarako prestatzen ikusi ahal izan ditugu asteotan.

Araudi bikoitza prestatu dute; Covid19ari lotutako baldintzak betetzeko bat, bestea kirol mailakoa. Usurbildarrek 1.800 kiloko “Urepel” harriari tirako diote, Joseba Sanchezek 750 kiloko “Txefarri” harriari, hurrenkera horretan hain zuzen; lehenbizi usurbildarrek parte hartuko dute, segidan leitzarrak. Saio bakoitzak 30 minutuko iraupena izango du. “Saio bakoitza, frontoi aldeko

IGANDEKO LEHIA

“Usurbildarrek 1.800 kiloko ‘Urepel’ harriari tirako diote. Joseba Sanchez leitzarrak 750 kiloko ‘Txefarri’ harriari, hurrenkera horretan”

lehenengo arrastotik hasiko da, plaza 13 zintakoa delarik”, antolakuntzak gogorara-

zi duenez. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak kontrolaturiko proban, “harrira doan katea puskatzen bada matxura kontsideratuko da, 5 minutuko tarte egongo da beharrezko konponketak egiteko”.

Txomin Alkorta omenduko dute Erronka honen ostean, herri kirolen arloan, zehazkiago esanda, aizkolaritzan nahiz segan txapelketa entzutetsu

asko irabazi eta ibilbide ezin oparoagoa jorratu duen Egioleta baserriko Txomin Alkorta Sarriegi herritarra omenduko dute. Ekitaldirako sarrerak 5 eurotan eskuratu ahalko dira egunean bertan, Sutegi atarian. Eguerdia borobiltzeko, Saizar sagardotegian bazkaria antolatu dute. Bertaratu nahi duenak, urriaren 15a baino lehen deitu dezala 618 009 069 telefono zenbakira.

Hainbat neurri murriztaile, bertan behera Kiroldegian

Covid19ak eragindako osasun krisialdiari lotuta, indarrean ziren neurri murriztaile gehienak bertan behera uztea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Udalak ere zenbait neurri bertan behera uztea erabaki du.

Hitzordurik ez da eskatu beharko

Oiardo Kiroldegian aldezu aurreko hitzordurik ez da eskatu beharko ez igerilekua ezta gimnasioa erabiltzeko ere.

Instalakuntzotan egoteko denbora tarteak ez da mugatuko. “Salbuespena saunare-

na izango da: pertsona bakarra egon daiteke bertan, eta beraz, beharrezkoa izango da hitzordua aldezu aurretik hartzea (943 37 24 98 telefonora deituta”).

Kiroldegiko edukiera %100ekoa Edukiera %100ekoa izango da areto zein aldageletan eta maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da “Kiroldegira sartu zein ateratzean eta ikastaroetan zein gimnasioan; kentzeko baimena izango dute soilik kirol entrenamendu edo partidetako jokalariek zein igerilekuko erabiltzaileek”, Udalak ohartarazi duenez.

Garbiketa zerbitzuak

Desinfekzio lanen uneetan, “espazioak ez dira itxiko”. Prebentzio neurriak euste aldera halere, eta “jende pilaketak saihesteko”, batetik, “gimnasioko makinak dauden bezala mantenduko dituzte, 1,5 metroko distantzia bermatze aldera. Bestetik, ikastaroen orduetan igerilekuetara soilik ikastaroetako erabiltzaileak sartu ahal izango dira: printzipioz, hala izango da abendura arte”.

Horrekin batera, kiroldegi barruko espazio desberdinetara joateko norabideak mantendu egingo dituzte.

Eskubaloitako partidak ikusteko aukera

“Harmaila berriak jarri bitartean, aulkietan eser daitezke ikusleak eta derrigorrezkoa izango da maskara janztea”.

Usurbil KE, partidak Urriak 16 larunbata

■ 16:00etan, Kadete Mutilen Euskal Liga: Usurbil KE-Urdaneta

Urriak 16 larunbata

■ 17:30ean, Jubenil Mutilen Euskal Liga: Usurbil KE-Urdaneta

NOAUA!ren 25. urtemuga ospatzeko eguna urriaren 23a izango da

Mende laurdena bete du NOAUA! Kultur Elkartek eta ospatzera goaz, zuekin; sortzaile, bazkide, langile, kolaboratzaile, herri eragile, laguntzaile, babesle guztiokin. Hitzordua jarria dugu; urriaren 23a larunbata, arratsaldeko 18:30ean, frontoian, non bestela?

“Herria herritik, beste 25 urte baietz!”

Festa giro betean joango zaigun ekitaldia prestatzen gabil-tza, azken hilabeteotako dinamika jarraiki, “herria herritik, beste 25 baietz!” aldarriaren bueltan.



NOAUA! Kultur Elkartea herriak sortu zuelako, herriarekin ospatu nahi dugu 25. urtemuga.

Dantza, bertsoa, musika...

Hain zuzen horregatik, NOAUA! Kultur Elkartea herriak sortu zuelako, herriarekin ospatu nahi dugu 25. urtemuga hau ere. Jolasak, dantza, bertsoak, musika... denetarikoa osagaiak izango dituen ekitaldia herritik herriarentzat antolatuta da, kasu honetan mende laurdenari gorazarre egin eta

**URRIAK 23 LARUNBATA,
18:30EAN FRONTOIAN
“Etorriko zara ezta?
Bestela eamangoaue!”**

elkarlanean egindako ibilbidea nabarmentzeko.

Eta noski, aurrera begira ere ibilbide horretan sakontzeko.

Aurrez eman behar da izena

Bertara joan nahi duenak, izena doan eta aurrez bidera dezake jada usurbilkultura.eus plataforman, urriaren 21a baino lehen.

Etorriko zara ezta? Beste la eamangoaue! Ez ahaztu, NOAUA! Kultur Elkartean 25. urtemugako txapa horia jantzi-ta agertzea.

Bezperan, haurrentzako saioa

Yogurinah Borovaren kantuak eta Maria Urzelaireren ipuin kontaketa uztartzen dituen emanaldia antolatuta dugu NOAUA!-Fest bezperarako, urriaren 22an ostirala, 17:00etan Potoxoen ondoko Olanonea plazan. Urriaren 20a baino lehen eman beharko da izena, usurbilkultura.eus plataforman.

Brigadan lan egiteko Beterri-Buruntzako udalen enplegu-prestakuntza plana martxan da

Dialdia, lan merkatuan txertatzeko zailtasunak dituztenei zuzendua egongo da. Guztira eskualdeko udal brigadetan aritzeko 17 lanpostu eskainiko dira.

Beterri-Buruntzaren enplegu prestakuntza planean izen-ematea zabalik da jada. Udal brigadetan lan anitzetan aritzeko 17 lanpostu iragarri dituzte. Usurbilgo Udalaren kasuan, lanaldi osoko hiru lanpostu bost hilabeteetarako.

■ Urriak 25-abenduak 10: hiriguneen mantenu ikastaroa (150 ordu).

■ Ikastaroa gainditzen dutenentzat: eskualdeko udal-brigadetan operario gisa lan egiteko aukera, 17 lanpostu guztira. Usurbilen lanaldi osoko hiru lanpostu bost hilabeteetarako.

■ Nori zuzendua: lehentasunez, Diru Sarrera Bermatzeko Errenta (DSBE) kobratzen dutenei (lanpostuen %30, 5 guztira). Gainerako lanpostuak 35 urtetik beherakoentzat, 45

urtetik gorakoentzat, denbora luzeko langabetuentzat eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzat (tartean, 7 lanpostu -%40a- emakumeentzat eta beste 3 lanpostu -%15- 55 urte baino zaharragoentzat lehenetsiko dira).

■ Bete beharreko baldintzak: hiriguneen mantenu ikastaroa gainditzeara; Beterri-Buruntzako udaletakoren batean (Andoainen, Astigarra, Hernanin, Lasarte-Oria, Urnietan edo Usurbilen) errol-

datuta egotea; aurretik programa honen onuradun ez izana; Lanbiden langabetu gisa izena emanda egotea.

■ Izen ematea: urriaren 7tik aurrera (hautagai kopuru nahikoa osatu arte) lanbide.eus web orrialdeko enplegu atalean.

■ Informazio gehiago: udal-txetan (Joxe Martin Sagardia plaza z/g) / 943 371 951 / enplegu@usurbil.eus

■ Sustatzaileak: Usurbilgo Udalak, Beterri-Buruntza, Lanbide.

Txirikorda eraikitze lanak hilabete honetan has daitezke

Belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa eraikitzen hastear dira Ugartondon. Txirikorda egitasmoa gauzatzeko lanak, Construcciones Murias S.A. enpresari esleitzea erabaki zuten aho batez irailaren 30eko udalbatzarrean. Lau enpresa aurkeztu ziren lehiaketara, azkenean Murias izan da puntuazio altuena eskuratu duena. Urriaren 4an sinatu asmo zuten kontratua.

Lanak estreinatu berri dugun hilabete honetan bertan has daitezke. Aurreikusitako epeak betetzen badira, udal gobernu taldearen esanetan, 2023. urte hasieran “Txirikorda ireki” ahal izango da. Urtebete geratzen da orde aurretik, eta tarte honetan eraikinen erabilera arautuko duen ordenantza landu asmo dute. Gogoan izan, par-



Partehartze prozesu baten bidez finkatu ziren Txirikordaren inguruko oinarritzko irizpideak.

EPEAK

“Aurreikusitako epeak betetzen badira, 2023. urte hasieran Txirikorda ireki ahal izango da”

te hartze prozesu baten bidez finkatu ziren oinarritzko hainbat

irizpide. Egitasmo honetan parte hartu nahi dutenentzat gainera, “udaberri aldean jardunaldi batzuk” antolatu asmo dituzte. Elkarbizitza eredu aitzindari eta berritzaile honen lanketa bideratu asmo dute eraikitze lanek iraun artean, erabiltzaileak izan daitezkeen bi kolektibo nagusiekin; gazteekin eta adinekoekin.

Elkarbizitza planaren aurkezpena

Iaz Aztikerrek Usurbilgo Udalarentzat landutako “Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen” diagnostikoa landu zuen, “migrazioen inguruko esperientziak eta diskurtsoak bildu eta guztien arteko elkarbizitzan sakontzeko helburuarekin”. “Migrazioari maskarak erazuten” ikus-entzunezkoa ere ekoitzi zuten. Urrats berri bat eman dute orain; jatorri aniztasunari buruzko plana prestatu du Udalak. Urriaren 26an 18:00etan aurkeztuko du Sutegiko auditorioan eta horrekin batera, “gaian sakontzeko interesa duten herritarren talde bat osatzea ere izango du helburu aurkezpenak”. Hitzordura joateko izena aurrez bideratu beharko da usurbilkultura.eus plataforman edo 943 377 110 telefono zenbakira deituta.

Hitzarmen berritzeak



Zumarte Musika Eskola, DYA eta Odol Emaileen Elkartarekin zituen hitzarmenak berritu ditu Udalak.



Usurbilgo Udalak eta Zumarte Musika Eskolak hitzarmena berritu dute urtebeterako. Udalak, gainera, %10 igoko du musika eskolaren jarduna laguntzeko ekarpena: 50.000 eurotik 55.000 eurora, zehazki.

Agurtzane Solaberrieta alkateak eta Agurne Alkorta Zumarte Musika Eskolako lehendakariak sinatu zuten bi erakundeen arteko hitzarmena.

Udalak, bere aldetik, diru ekarpena handitzea erabaki

du, batetik, Zumartek bere eskaintza zabaldu duelako eta, bestetik, Usurbilek kulturarekin duen lotura estuan zerikusi handia duelako musika eskolak, batez ere, herriko haurren musika formakuntzari begira.

Usurbilgo Odol Emaileen Elkartarekin eta DYA-rekin ere hitzarmenak berritu ditu Udalak urtero moduan, “gizarteari egiten dioten ekarpenaren garrantzia tarteko”. 5.285 euro jasoko dituzte guztira.

“Katalogo bat sortu dugu, herritarrek jakin dezaten zer saltzen den herriko establezimenduetan”

Uda hasi aurretik Gertuagok fase berri bat martxan jarri zuen Miren Cuerdoren gidaritzapean. Gertuago.eus webgunea eraberritu du, eta merkatarien katalogoa izango da aurrerantzean. Dinamizatzailearekin izan da NOAUA! xehetasunen berri izateko.

NOAUA! Pandemia garaian bonoak atera zituen. Oraingo proiektuan horri jarraipena ematen ari zaio edo beste proiektu berri bat da?

Miren Cuervo: Jarraipena eman nahi genion horri. Bonoen sistemak oso ondo funtzionatu zuen, baina nahiko dirurik ez dago horrekin jarraitzeko, ez behintzat kontzienteki bonoen eskaintza horrekin jarraitzeko. Beraz, pentsatu genuen katalogo bat sortzea, batez ere herritarrek jakiteko zer saltzen den herriko establezimenduetan. Gisa horretara, beharrak identifikatu eta horiek non eta nola asetu errazago jakingo dute bezeroek. Gertuago.eus atarian bilaketa egin eta herrian saltzailerik baden jakiteko balio du, lehen aukera herrian erostekoa izan dadin.

Gaur egun dena oso digitalizatuta dago, eta ematen du ez baldin bazaude mundu digital horretan jada ez zarela existitzen. Helburu horrekin abiarazi genuen katalogoa.

Fase berri honetan hasi zara zu ere Gertuagorekin lanean?



“Gaur egun oso digitalizatuta dago dena. Ematen du ez baldin bazaude mundu digital horretan jada ez zarela existitzen. Helburu horrekin abiarazi genuen katalogoa”, azaldu digu Miren Cuervo.

MIREN CUERDO

“Prozesua geldo doa, baina pozik gaude egiten ari garenarekin: argazki politikak, deskribapen on batzuk... Gertuagoko katalogoa osatzen ari gara gutxinaka”

Orduan hasi nintzen ni ere bai, ni bonoak zeudenean ez nengoen. Dinamizatzaile lana egiten dut nik. Merkatariek ezberdinengana eta establezimenduetara joaten naiz, eta estrategikoki laguntzen diet aukeratzen zein produktu edo zerbitzu mota komeni zaien

jartzea. Beste establezimenduetatik bereizten laguntzen diet edo beraien balio gehitu hori indartu nahian. Argazkiak ateratzen dizkiet beraiei, beraien produktuekin. Argazki horiek beraien sare sozialetan parteka ditzakete edo webgune bat egin nahi baldin badute egunen batean, materiala izan dezaten.

Proiektua martxan jarri zenuenetik enpresa batzuk gehitu dira.

Bai. Hasieran hasi ginenean nik laguntzaile bat neukan, lan erritmoa hartu arte bidelagun izan nuena. Gure helburua sortzen duguna, zentzuz eta ondo egitea. Denbora bat su-

posatzen du beraiegana joan argazkiak atera... Adibidez, Alkartasuna Baserritarren Kooperatibako argazkiak ateratzeko kanpora joan ginen produktuei testuinguru bat eman eta erabilpena hobeto irudikatzeke. Ahalik eta modu profesionalenean eraman nahi dugu aurrera prozesua. Egia da prozesua geldo doala, baina behintzat pozik gaudela ateratzen ari den horrekin: argazki politikak, deskribapen on batzuk... Katalogoa osatzen ari gara pixkanaka pixkanaka. Helburua da Usurbilgo establezimendu denak egotea. Ez dut uste den-denak egotea lortuko dugunik, baina helburu hori izango litzateke.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE Nagusia 10- atzekoaldea
943 372 795


“Katalogoari esker eskaintza guztien berri izango dute herritarrek”

NOAUA! Katalogo honek zein onura ekar ditzake herritarrentzat?

Miren Cuervo: Gertuago.eus webgunea sare sozial batzuei lotuta dago. Horien bidez, herritarrek lehenago ohartuko dira berrikuntzei webgunetik baino. Sare sozial horien bidez iritsiko dira webgunera. Katalogoarekin eskaintza guztien berri izango dute herritarrek.

Adibidez, Lizardik irailean ikastolarako testuliburuak eskatuz gero, %5eko beherapena eskaintzen zuen materialean. Optikan 2. lenteak dohainik... Gisa honetako eskaintzak jakitea edonorentzat da ona. Kontua da kontziente izatea zein gauza eskaintzen diren.

Askotan pentsatzen dugu garestia izango dela herrian erostea eta merkea izango dela Amazonekoak edo Hurbilekoak erostea. Gehien bat



gertuago.eus web orriaren atarikoa.

GERTUAGO.EUS

“Oraindik 18 saltoki baino ez dira, baina pixkanaka-pixkanaka gehitzen goaz. Helburua hazten joatea da”

hori: produktuak ezagutu eta eskaintzen berri izan.

Orain zein puntutan zaudete? Katalogoa funtzionamendu normal batean ari da lanean?

Oraindik 18 komertzio baino ez dira, baina pixkanaka pixkanaka gehitzen goaz. Helburua hazten joatea, eta gero eguneratzen joatea. Lehenengoa denei katalogoa egitea izango da kontua, eta gero promozio lana egitea sare sozialen bitartez.

“Herriko merkatariek eskaintzen duten zerbitzua pertsonalizatua da, eta gertukoa”

NOAUA! Proiektu honetan edozein motatako establezimenduak sar daitezke?

Miren Cuervo: Usurbildarrak baldin badira, edozein sar daiteke. Oraingoz artisautza ez dugu ukitu, baina irekita egongo litzateke horretarako ere. Batez ere establezimendu fisiko bat daukaten horientzat da proiektua, bertara gerturatzeari helburuetako bat baita. Online salmenta aztertu zen momentu batean, baina merkatariek gehienbat nahi dute herritarrek beraiek etortzea dendara. Beraiek eskaintzen duten zerbitzua oso pertsonala da, gertukoa eta euskaldu-



“Batez ere establezimendu fisiko bat daukaten horientzat dago pentsatua”.

na, eta hori ere baloratu egin behar da. Oso erraza da ordenagailuan bilaketa bat egitea, eta Amazonek hurrengo

egunean ekarriko dizu, baina hemen beste gauza batzuk dauzkagu eta horiek baloratzen ikasi behar dugu.

“Herritarren inplikazioa nahitaezkoa izango da”

NOAUA! Nolako erantzuna ari da izaten proiektua herritar eta merkatarien artean?

Miren Cuervo: Nik uste merkatarien artean denetarik dagoela, baina hasieratik daudenak dira gehien inplikatu direnak eta oso pozik daude. Nik beste ikuspuntu bat ematen diet lan egiteko moduari lotuta eta marketing kontuei dagokienez. Ez da weborria sortzea bakarrik. Nahiko lan badaukate pandemiaren ondorioekin, eta laguntza hori hor izatea gauza handia da beraientzat. Orduan bai edozer gauzetarako laguntzeko prest gaude. Oraindik ez dute onura zuzenik ikusi. Sare handiago bat sortu behar dugu, eta herritarren inplikazioa ere nahitaezkoa izango da. Sare sozialetan jarraitzaileak ezinbestekoak dira, bestela gure lanak ez du dimentsiorik hartuko. Ez da asko kostatzen herriko merkatarien sare sozialak jarraitzea, eta horretara animatu nahiko nituzte denak: Gertuagoko plataformak jarraitzera. Beraientzat ere onuragarriak dira eskaintza asko.

Adibidez, Opil Goxon gosari osoak eskaintzen dituzte bost euroren truke, eta hori batzuentzat interesgarria izan daiteke. Beldurrik ez izatea behintzat jendeak establezimenduetan sartzeko. Merkatariek nabaritu dute jendea ez dela horrenbeste sartzeko gero ezezkoa emateko beldurrez. Lasaitasun mezu bat bidali nahi diet zentzu horretan. Lasai sartu, dena ondo begiratu eta konfidantzazko tratua jasoko dute.

Magiaz giroturiko larunbata Aginagan


Antxomolantxa elkar-teak Harritzearen abilezia izeneko ikuskizuna antolatu du Aginagako Eliza Zaharrean. Arratsalde partean izango da baina magiarekin interesatuta dauden gaztetxoek tailer batean parte hartu ahal izango dute eguerdian.

Urriak 16, larunbata

■ 12:00 Magia tailerra Eliza Zaharrean. “Zenbatetan sentitu nahi izan zinen mago txikia zinenean? Zenbatetan desiratu zenuen zure eskuekin magia egin ahal izatea, eta zure lagunak eta familia harritzea? Imaginatu mago bat etortzen dela eta bere sekretu ezkutuenak erakusten dizkizula. Gaur zure zorteko eguna da”.

Sarrera: 5 euro (arratsaldeko ikuskizuna barne).

■ 18:00 Harritzearen abilezia ikuskizuna Eliza Zaharrean. “Inpaktu handiko ekoizpena, joku landu, ilusio handi



Hodei magoaren saiora joateko, izena eman behar da aldeztu aurretik usurbilkultura.eus plataforman.

ELIZA ZAHARREAN

**“Hodei magoak
‘Harritzearen abilezia’
ikuskizuna eskainiko du
Eliza Zaharrean”**

eta ideia originalekin. Hodei magoaren ohiko umoreak eta bere laguntzailearen presen-

tzia eszenikoak publikoa harapatuko dute ordu bat baino gehiagoz, erritmo aldatetekin, sorpresek eta publikoak antzokitik abesten ateratzea erango duen soinu bandaz beteriko proposamenarekin”.

Sarrera: 3 euro.

Izen ematea: aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

Irisasi BTT-ren arropa salgai



Arroparen eskaintza ikusteko eta erosketa egiteko formulario bat zabaldu dute Interneten.

Irisasi BTT-k jakinarazi duenez, salgai du 2021. urteko arropa. Formulario bat prestatu dute eskaerak kudeatzeko. Bertan, “aukeratu zer arropa eta zer taila behar duzun”. Urriaren 29ra arteko epea dute interesdunek, eskaerak bideratzeko.

Aukeran dute, “Irisasi BTT Usurbil” dioen kolore gorriko mailot luze eta motza, kulote beltz luze zein motza, “pirata” estilokoa ere bai, jakak baita,

txalekoak... Neurri guztiak aukeran; S, M, L, XL, XXL eta XXXL.

Duten eskaintza ikusi eta erosketak egiteko ondoko formularioa baliatu behar da. Esteka honetan dituzue erosketa prozesuari buruz jakin beharreko xehetasunak:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfCtk-tOUyZ6-cW7mFsX9ccnVAi-F7v6WrEJlMp4Q9Wmp2cLR2w/viewform>

10. edizioa, 2022ra atzeratua

Urtarrileko azken igandean ospatu ohi dute Irisasi BTT ‘Hotzak Akabatzen’ ekimena, Andatza inguruak zeharkatzeko aukera eskaintzen duen proba herrikoia. Azkenekoz, 2020. urtean ospatu ahal izan zuten. 2021ekoa aldiz bertan behera utzi behar izan zuten Covid19ak eragindako osasun krisialdiagatik. Edizio borobila izan behar zuena, hamargarrena, 2022ra atzeratzea erabakia dute.

‘Gizonak, maskulinitateen kaiolan?’

hitzaldia Sutegin

Gizonen sexualitateak hizpide zituen urriaren bateko “Satiro” antzezlanaren ondotik, tratua on, parekidetasuna eta sexologia arloetan eragiten duen Arremanitz kooperatibako kide Ibon Arrizabalaga de Mingok “Gizonak, maskulinitateen kaiolan?” hitzaldia eskainiko du urriaren 14an 18:00etan Sutegin. Izen ematea: parekidetasuna1@usurbil.eus edo 943 377 110.



Ibon Arrizabalaga de Mingok eskainiko du hitzaldia.

Ludoteka plazara Santuenean

Urriaren 23an aterako dute auzoko plazara. “Ginkana, uretako jolasak, musikaz girotutako festa...” iragarri dituzte 16:30-19:00 artean.

Josketa tailerra

Josten ikasteko hastapen tailerra antolatu dute; urriaren 22an eta 29an, 17:00-19:00 artean. Mari Carmen Orozek bideratuko duen tailerrean 10 euroren truke parte hartu ahal da. Informazio gehiagorako: 670027731.



Josketa tailerra urriaren 22an eta 29an egingo da.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705.

Alokairuan

Neska kaudimenduna, mas-kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izateag baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar dugu Olarrondo jatetxean asteartetik ostiralera, eguerdietarako soilik. 626 686 036.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore

laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egin dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan

aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordutegi aldetik disponibiltate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

BESTELAKOAK

Ukelelea ikastea gustatuko litzaidake. Taldean edo banaka aritzeko arazorik ez. Irakasleko moduan bazara deitu 606330556 telefono zenbakira.

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko: 660845780 / bouchrahar@outlook.com

Goardiako farmaziak

Osteguna 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 15 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 18 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 19 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 20 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda urria

15 ostirala

- **Nerea Arriolaren bakarriketa.** 18:30ean Zubietako Elizan. Izen ematea: doan urriaren 13ra arte, usurbilkultura.eus plataforman.

16 larunbata

- **Magia Eguna Aginagan.** 12:00 Haurrentzako tailerra Aginagako Eliza Zaharrean. 18:00 "Harritzearen abilezia" ikuskizuna Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak: doan. Aurretik izena eman behar da usurbilkultura.eus plataforman.

17 igandea

- **Buruntzaldeko Ibilbideen 13. Eguna.**
- **Herri kirolak eta Txomin Alkorta Sarriegiri omenaldia.** 12:00etan Dema plazan.
- **Pelax taldearen kontzertua.** 19:00etan Sutegin. Izen ematea: urriaren 17ra arte 6 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman.

Nerea Arriolaren bakarriketa, ostiral arratsaldean Zubietan

Urriaren 15ean ostirala, Nerea Arriola umoregileak bakarriketa-saioa eskainiko du Zubietan. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da emanaldia eta Zubietako elizan egingo da. Aurretik eman behar da izena, usurbilkultura.eus web orrialdean.

Zubietako elizan

- Urriaren 15ean ostirala.
- 18:30ean Zubietako elizan.
- Prezioa, doakoa.
- Sarrerak usurbilkultura.eus web orrialdean eskuragarri.



Ostiral honetan arituko da Zubietako elizan, arratsaldeko 18:30ean hasita.

Larunbat honetan, Magia Eguna Aginagan

Gaztetxoek tailer batean partehartu ahal izango dute larunbat eguerdian, Aginagako Eliza Zaharrean. Eta arratsaldeko 18:00etan, "Harritzearen abilezia" ikuskizunean. Bi ekitaldietan sarrera doan da. Hori bai, aurretik izena eman behar da izena usurbilkultura.eus plataforman.

- Urriaren 16an larunbata.
- 12:00etan haurrentzako tailerra eta 18:00etan ikuskizuna Eliza Zaharrean.
- Prezioa: doan.
- Sarrerak online: usurbilkultura.eus

Igandean, Pelaxen kontzertua Sutegin

Hainbat hilabete emanaldirik egin gabe pasa ostean, bueltan da Pelax rock talde donostiarrak. 2019ko ABDE disko progresibo bikoitza kaleratu denetik ia pare bat urte pasa diren honetan, "gogotsu dago boskotea lokaletik atera eta oholta berri zapaltzeko", udalaren web orrialdean irakurri dugunez.

- Urriaren 17an igandea.
- 19:00etan Sutegin.
- Prezioa: 6 euro.
- Sarrerak online: usurbilkultura.eus

Datozenak



'Miñan' liburuaren aurkezpena, Amets Arzallusen eskutik

- Urriak 20 asteazkena.
- 19:00etan Sutegin.
- Izen ematea doan. Urriaren 18a baino lehen, usurbilkultura.eus plataforman.
- Oharra: Liburuaren hainbat ale eskuragarri daude udal liburutegian.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Urriaren 24an, bertso-ibilbidea

Urriaren 24an igandea, bertso-ibilaldia antolatu dute. Txokoaldeko parketik abiatuko dira goizeko 10:00etan.

- Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña. Jakoba Errekondok hainbat argibide eskainiko ditu.
- Izen-ematea: alkartasuna@usurbil.com idatziz edo 943 361 114 telefono zenbakira deituz.

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

600 024 825

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ARRANDEGIA

PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI

650 31 31 91 USURBIL



**“Pribilegiatu bat naiz.
Nire belaunaldikook beti
izan dugu BERRIA”**

Eneritz Furyak

Musikaria

berria

zuk badakizulako

Egin

BERRIAlaguna

ZOZKETA!

ARZAK



DASTATZEKO MENU 1

(Bi lagunentzat)

Parte hartu urriaren 29ra arte, zozketaren kupoia Urbileko doako aplikazioan aktibatuz eta gozatu ESPERIENTZIA GASTRONOMIKO BATEZ ARZAK JATETXEAN